



## ARTZINIEGAKO UDALA

### AKTA

**Saioa: Ezohiko osoko bilkura**  
**Eguna: 2017ko martxoak 23**  
**Ordua: 08:35 – 08:40**  
**Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela**

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta  
Inmaculada Vivanco Retes  
Jose Luis de Valle Duque  
Maria Lorente Burgos  
Joseba Mirena Vivanco Retes  
Alazne Lafragua Ureta  
Unai Gotxi Kastrexana  
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Arkaitz San Jose Martinez, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M<sup>a</sup> Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 08:35etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

#### **1. 2017ko otsailaren 9an eta martxoaren 2an egindako saioetako aktak zirriborroan onartzea, hala badagokio.**

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue?

Unai Gotxi Kastrexana: bai, otsailaren 9koan, 25. orrialdean, zortzigarren puntuko botoetan, 22. orrialdean dagoena, Arkaitz eta biok abstentzioa eman genuela ipintzen du, eta Joseba eta biok eman genuen abstentzioa, Arkaitzek aldeko botoa eman zuen.

Alkatea: Besterik?

Bestelako oharririk egin ez denez, 2017ko otsailaren 9an egindako saioetako akta bozkatu da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Alazne Lafragua Ureta

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (2); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).

Onartuta geratu da.

Bestelako oharririk egin ez denez, 2017ko martxoaren 2an egindako saioetako akta bozkatu da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).

Onartuta geratu da.

## 2. Zerbitzu publikoak eman eta administrazio-jarduerak egitearen ondoriozko Tasak arautzeko ordenantza fiskalaren IX. eranskinaren B) epigrafea aldatzea.

### **“2017KO MARTXOAREN 16AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

Kontuan hartuz Zerbitzu publikoak eman eta administrazio-jarduerak egitearen ondoriozko Tasak arautzeko ordenantza fiskalaren 9. eranskinaren B) epigrafearen (igerilekuak) aldaketa onartzeko Legeria aplikagarriari eta jarraitzeko prozedurari buruzko 2017ko martxoaren 15eko Idazkaritzaren txostena.

Legez ezarritako izapidea eginda, Udalbatzari proposatzen zaio har dezala hurrengo

#### **AKORDIOA**

**LEHENA.** Zerbitzu publikoak eman eta administrazio-jarduerak egitearen ondoriozko Tasak arautzeko udal Ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea espedientean agertzen diren baldintzetan, jarraian jasotzen den moduan idatzita:

« I X . E R A N S K I N A

#### **B) EPIGRAFEA IGERILEKUAK**

TARIFA	LANEGUNAK	IGANDE ETA JAIEGUNAK
1. Barrutian sartzegatik, egun osoan:	Euro	Euro
a) Heldua (25 urtetik gora) .....	3,00	3,50
b) Gaztea (14 urtetik gora eta 25 urte edo gutxiago)	2,00	2,50
c) Haurra (5 urtetik gora eta 14 urte baino gutxiago)..	1,50	1,75
	ERROLDATUAK	EZ ERROLDATUAK
2. Barrutian sartzegatik, goiz eta arratsaldeko abonuz:	Euro	Euro
a) Familia-abonua .....	31,00	55,00
b) Bakarkako abonua, 25 urtetik gorakoentzat.....	19,00	35,00
c) Bakarkako abonua, 25 urtetik beherakoentzat.....	10,00	18,00

Familia-abonua: familia-unitatetzat ulertzen da matrimonioak edo izatezko bikoteak osatzen dutena, abonua ordaintzeko unean 18 urte baino gutxiago dituzten ondorengoak barne, eta 18 urtez azpitiko ondorengoak dituzten guraso bakarreko familiak.



*Egiaztagiria: adina egiaztatzeko NAN agiria aurkeztu beharko da edo 14 urtetik beherakoen kasuan, hura izan ezean, familia-liburuaren kopia.*

*Familia-unitatea egiaztatzeko erroldatze kolektiboaren bolantea aurkeztu beharko da. Familia-txartela erroldatze kolektiboaren bolantean adierazten diren pertsonen emango zaie.*

*Hobariak eta salbuespenak:*

- 1.- 25 pertsona edo gehiagoko taldeek, lanegunetan, % 20ko deskontua izango dute sarrerako.*
- 2.- Sarrera doakoa izango da 5 urtetik beherako pertsonentzat.*
- 3.- Halaber, sarrera doakoa izango da 65 urtetik gorako pertsona erroldatuentzat.*
- 4.- Bakarkako abonua doakoa izango Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gaineko Zergari dagozkion salbuespenak arautzen dituen 44/1989 Foru Arauaren 2. artikularekin bat etorritik ezgaitasuna duten pertsonentzat. Horri dagokionez, hobaria Udalean eskatu beharko da. »].*

**BIGARRENIK.** *Udal Ordenantzaren aldaketa jendaurrean eta interesdunen aurrean ipintzea, Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratuta, hogeita hamar eguneko epean zehar, erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten, Korporazioak ebaztekoak izango direnak. Aipatutako epean erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betikoz onartutzat joko da, Udalbatzaren aldetiko Akordio berariazkoaren beharrik gabe.*

**HIRUGARRENA** *Alkate-Presidente jaunari gai honekin lotutako dokumentu oro sinatzeko eskumena ematea”.*

*Alkatea: igerilekuei buruzko 9. epigrafearen aldaketa da, udal igerilekuen zerbitzuari dagozkion tasarena, zerbitzu publikoak eman eta administrazio-jarduerak egitearen ondoriozko Tasa arautzeko Ordenantza fiskalari buruzko IX. eranskineko ordenantza fiskalean jasotzen dena. Zerbait esan nahi duzue? Bozkatzeari ekingo diogu.*

*Kontrako botoak:*

*Batere ez.*

*Abstentzioa:*

*Batere ez.*

*Aldeko botoak:*

*Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoak (1).  
Onartuta geratu da.*

### **3. Bake-epailea izendatzea.**

**“2017KO MARTXOAREN 16AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

*Bake-epailea eta ordezkia izendatzea.*

*Ikusirik, Bake-epailei buruzko Botere Judizialaren eta Erregelamenduaren ekainaren 7ko 3/1995 Lege Organikoaren 101. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, Bake-epaile Titular eta ordezkia proposatzeko hasietako espedienteak.*

**KONTUAN HARTUZ,** 2017ko otsailaren 21ean publizitatea emateko eta plaza hori betetzeko interesa zuten pertsonen NAN agiriaren fotokopia eta datu profesional eta pertsonalak aurkezteko Bando bat ipini zela, epea 2017ko martxoaren 8an amaituta.

**IKUSIRIK** epe barnean interesdun hauek aurkeztu direla:

- Itziar Arteaga-Gurtubay Juez
- Rosa Maria Delgado Bartolome

Eta, epea igarota, 2017ko martxoaren 15ean, eskaera aurkeztu zuen honakoak:

- Sergio Torre Salaberrri

*Ikusirik, 2017ko martxoaren 16an egindako saioan hautagai bakoitzak aurkeztutako datuak eta haien prestakuntza akademikoa, Antolaketa Informazio-batzordeak Udaltzari proposatzen dio, bertako kideen gehiengo osoz, har dezala hurrengo*

#### **AKORDIOA**

**Lehena.-** Artziniegako Bake-epaile titular modura ITZIAR ARTEAGA –GURTUBAI JUEZ proposatzea, 45.627.494-W NAN zenbakia duena, 1978ko abuztuaren 4an jaioa, helbidea Eguzkimendi 4 beheka B kalean duena, 01474 PK Artziniega (Araba). Telefonoa 693652549, Pedagogian Lizentziatua, Lan Kudeaketako Graduondoa.

**Bigarrena.-** Bake-epaile ordezkari modura ROSA MARIA DELGADO BARTOLOME proposatzea, 30.659.478-H NAN zenbakia duena, 1973ko maiatzaren 6an jaioa, Helbidea Zaballa 18 kalean duena - 1474 PK Artziniega (Araba). Telefonoa: 615701810 eta Enpresaritzan Lizentziatua.

**Hirugarrena.-** Plaza horiek betetzeko berariazko onarpena eskatzea eta, era berean, Botere Judizialaren aipatu Lege Organikoaren 102, 302,303 eta 389 artikuluetan kargu judizialak betetzeko aurrekusten diren ezgaitasun edo bateraezintasun egoera batean ez egotearen deklarazioa eskatzea”

Alkatea: Ezer esateko? Bozkatzeari ekingo diogu.

Jose Luis de Valle Duque: Gaztelaniaz Jueza egokia da? Ez da *la Juez*?

Alkatea: nik usten dut *Jueza erabiltzen dela*.

Jose Luis de Valle Duque: *La Jueza* da ezta? *Electricista* bezala, hots, *el* edo *la electricista*.

Alkatea: uste dut horri buruz badela eztabaida, eh? RAE arauan *Juez/Jueza agertzen da*.

Jose Luis de Valle Duque: *Juez/Jueza?* Biak?

Unai Gotxi Kastrexana: bai. RAE arauan *Jueza onartzen da*.

Jose Luis de Valle Duque: gogoratu naiz esan egin duzuelako hain justu.

Alkatea: beno, baduzue ezer esateko? Bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoak (1).

Onartuta geratu da.

**4. Udal igerilekuetako Taberna-kafetegiaren alokairu eta ostalaritza-ustiapena esleitzeko baldintza administratiboaren Plegua onartzea.**



## **“2017KO MARTXOAREN 16AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO- BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA**

*Ikusirik, Udal igerilekuetako Taberna-Kafetegiaren alokairu eta ostalaritza-ustiapenari dagokion kontratua, prozedura ireki bidez, arautzeko klausulen Pleguak*

**IKUSIRIK**, hileko 150 euroko alokairu bat, gehi dagokion BEZ zerga, eta higiezina egokitzeko gutxienez 12.000 euroko inbertsioa ezartzen dela.

**IKUSIRIK**, kontratuaren iraupena hamar urtekoa izango dela hura formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, urtero epe hori luzatzeko aukeraz bi aldeek adostasunarekin, gehienez 5 urteko luzapen-epe batekin.

Udalbatzari proposatzen zaio, har dezala hurrengo:

### **AKORDIOA:**

**LEHENA.** Udal igerilekuetako Taberna-kafetegiaren alokairu eta ostalaritza-ustiapenerako kontratua, prozedura ireki bidez, arautzeko klausulen plegua, baldintza teknikoak eta inbentarioa onartzea, eduki hau duena:

### **“UDAL IGERILEKUETAKO TABERNA-KAFETEGIAREN ALOKAIRUA ETA OSTALARITZA-USTIAPENA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO KLAUSULA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA.”**

#### **I. KLAUSULA- KONTRATUAREN XEDEA**

Plegu honen helburua da, Artziniegako Barcena kalearen 7. zenbakian lekutzen den, ondarezko ondare modura kalifikaturik dagoen eta Ondareen Inbentarioan 14-10/000 erreferentziarekin agertzen den udal igerilekuetako Taberna-kafetegiaren alokairua eta ustiapena prozedura ireki bidez esleitzeko baldintzak arautzea.

Lokalarekin batera klausula teknikoen pleguan zerrendatzen diren altzari eta makinak jartzen dira esleipendunaren eskuetan, eta behin kontratua amaituta entregatutako baldintza berdinetan itzuli beharko dira, erabilera egokiaren ondoriozko berezko higadura kontuan hartu gabe.

Kontratuan errentariaren konturako prestazio hauek barneratzen dira:

- Instalazioen ustiapena Taberna-kafetegi modura erabiltzeko.
- Klausula teknikoen Pleguan aurreikusten diren gutxieneko egokitze-lanak gauzatzea.
- Eraikuntza-elementuen zaintza eta mantenua.
- Errentaren ordainketa Plegu honetan ezarritako modu eta baldintzetan

#### **II. KLAUSULA- KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Esleipendunaren eta Artziniegako Udalaren arteko harremana negozio-lokal baten errentamenduzko kontratu zibilar dagokiona da, izan ere, lokal komertzial bat ematen da errentan instalazio guztiekin (eraikinaren lehen solairuko lokalak eta gordailurako lokala beheko solairuan), lehendabiziko helburu gisa ostalaritza-jarduera garatzea izanik.

Kontratua Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duen Legegintzako azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuko 20.2 artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko da, hura prestatzeari eta klausulen Plegu honen eta aipatutako SPKLTB-aren nahiz hura garatzeko xedapenen bidez esleitzeari dagokionez. Gainera, osagarri modura, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira. Bere ondorio eta amaierari dagokionez, zuzenbide pribatuaren arabera arautuko da, lehendabizi plegu honetan xedatutakoaren arabera, halakorik

egon ezean, Hiri-errentamenduen Legean horri dagokionez xedatutakoaren arabera, eta osagarri modura, Kode Zibilean xedatutakoaren arabera.

Errentamenduaren esleipendunak bere arrisku eta menturan baitaratuko du higiezinaren ustiapena, bere kontura izanik lokala behar bezala ustiatzeko beharrezkoak diren gastuak. Ez du inolako indemnizaziorik jasotzeko eskubiderik izango ustiapenetik eratorritako matxura edo kalteengatik, ezta behin indarraldia beteta errentamendua amaitzearen ondorioz ere.

### III. KLAUSULA- ESLEIPENDUNARI ESKATUTAKO LIZITAZIO- ETA INBERTSIO-ERRENTA EREDUA

Lizitazioaren oinarritzko errenta edo eredia 150 eurotan, gehi dagokion BEZ zerga, finkatzen da, gorantz hobetu dezaketena lizitatzailleek.

Esleipendunak jarduera abiarazi aurretik higiezina egokitzeko gutxieneko inbertsio bat egin beharko du, 12.000 eurokoa.

Aurkeztutako proposamenaren arabera errentariak ordaindu beharreko errenta hamabi hiletan ordaindu beharko da, Artziniegako Udalak adierazten duen kontu korrontean. Ordainketa alde aurretik egin beharko da, hile bakoitzeko lehen bost egunetan. Kontratua hasten denetik egin beharko da hileko ordainketa. Jarduera hasten denetik urtebeteko gabealdi bat ezartzen da.

Lokala ixteak, edo kontratuak irauten duen bitartean, edo haren luzapenetako batean, edozein arrazoi dela medio ustiapena eteteak, eta ez-betetzearen ondorioz kontratua eteteko arrazoia izateko aukeraren kalterik gabe, ez du esleipenduna salbuetsiko errenta ordaintzeko kontratuzko betebeharretik.

### IV. KLAUSULA- HAUTAKETA- ETA ESLEIPEN-PROZEDURA.

Errentamendu-kontratua prozedura irekiz esleitu da, eta prezioa izango da esleipenaren oinarritzat hartzeko irizpide bakarra, ekonomikoki onuragarriena den eskaintzaren alde esleitu beharko delarik.

Interesa duen enpresari orok proposamen bat aurkeztu beharko du, lizitatzailleekin kontratuko baldintzen inguruko negoziazio oro galarazita dagoelarik, SPKLTB-aren 157. artikulua arabera.

Kontratazio-organoak ezingo du lizitazio bat esleitu gabe utzi plegu honetan agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat dagoenean.

### V. KLAUSULA.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Artziniegako Udaleko kontratatzailearen profila [www.artziniegakoudala.web-orrialdean](http://www.artziniegakoudala.web-orrialdean) agertzen da, kontratazio-prozedura horri dagokion gardentasuna eta informazioaren irisgarritasun publikoa bermatze aldera, eta beste publizitate-bitarteko batzuk erabiltzeko aukeraren kalterik gabe

### VI. KLAUSULA- KONTRATAZIO-ORGANOA

SPKLTB-aren Bigarren Xedapen Gehigarriaren lehen atalean xedatutakoarekin bat etorritik, Udalbatza izango da kontratazio-organoa.

### VII. KLAUSULA - IRAUPENA

Kontratuaren iraupena HAMAR URTEKOA izango da, hura formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, urtero epe hori luzatzeko aukeraz bi aldeen adostasunarekin, gehienez 5 urteko luzapenepe batekin.

Kontratua urtero luzatu dela ulertuko da, gehienez beste BOST urtez, aldeetako bakarrak kontratua edo azken luzapena berariaz salatzen ez badu, haren indarraldia amaitu baino hiru hilabete lehenago.

### VIII. KLAUSULA.- ERRENTARIAREN BETEBEHARRAK



Errentariak betebeharrak hauek bete beharko ditu:

- a) Bere kontura egokitu beharko du lokala, baldintza teknikoaren pleguan zehazten diren gutxienezko esku-hartzeak gauzatu.
- a) Udala jabetzako Taberna-kafetegia ustiatu beharko du, horretarako errentamenduaren xede diren lokal eta instalazioak martxan jarri, kontratua sinatu eta sei hilabeteko epean.
- b) Taberna publikoarentzat zabalik egon beharko da gutxienez udako udal igerilekuak irekitzen diren ordutegian eta haiek irekita dauden egun guztietan, jaiegunak barne. Igerilekuen denboraldiz kanpo, ordutegia eskaeraren inguruabarren arabera egokitu ahal izango da.
- c) Artziniegako Udalarik esleipenean ezarritako alokairuaren ordainketa egin beharko dio hilerik kontratuan adierazten den kontuan, eta Tabernaren funtzionamendutik eratorritako gastu guztiak beregain hartu beharko ditu. Halaber, negozioaren ustiapenak sorrarazten dituen orotariko zergak ordaindu beharko ditu.
- d) Errentariaren kontura izango da uraren, gasaren, elektrizitatearen, telefonoaren eta bestelako bitartekoren horniduraren ondoriozko ordainketa, hornidura-enpresei ordaindu beharko zaizkien zuzenean.
- e) Errentariak bere arrisku eta menturan kudeatzen du Taberna, eta ez du indemnitaziorik jasotzeko eskubiderik izango galera, matxura edo bestelako kalte batzuegatik.
- f) Zerbitzuaren erabilera pertsona orori baimendu beharko dio, edozein arrazoiren ondoriozko diskriminaziorik gabe.
- g) Higieztina, instalazioak eta ekipamenduak zaindu egin beharko ditu eta funtzionamendu, garbiketa eta higieztari dagokienez egoera bikainean mantendu beharko ditu, errentamendua amaitzearen ondorioz entregatu behar diren arte, berez dagozkion eta zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren instalazio guztiekin. Bere kontura izango da lehen solairu osoaren, lehen solairura iristeko eskaileraren eta gordailu modura erabiltzeko beheko solairuko lokalaren garbiketa. Igerilekuen denboraldiz kanpo, bere kontura izango da beheko solairura sartzeko atari nagusiaren garbiketa.
- h) Bere kontura egin beharko ditu lokala eta instalazioak mantendu eta birjartzeko beharrezkoak diren konponketa guztiak, kontratua amaitzen den unean, haiek bere eskura jarritako antzeko baldintzetan utzi.
- i) Alokaturako lokalean ezingo da inolako obrarik egin, Artziniegako Udalaren berariazko baimenik izan ezan. Edozein kasutan, errentariak egindako edozein motako obra edo hobekuntza higieztinean txertatuta geratuko da eta Artziniegako Udalaren jabetzara pasako da alokairu-kontratua amaitu ostean, inolako indemnitaziorik ordaindu beharrik gabe.
- j) Tabernaren funtzionamenduaren ondorioz sor daitezkeen kalteengatik hirugarrenen aurrean erantzun beharko du. Horretarako, kontratuak irauten duen epealdi osoan zehar erantzukizun zibileko edo arrisku anitzeko poliza bat izan beharko du, errentatzailearen eta hirugarren aurrean gauzatu duen jardueratik eratorritako arriskuak nahiz jarduera garatzen den higieztinetik eta hartako instalazioetatik eratorritako arriskuak askatasunez estaltzeko. Poliza horiek, primak ordaindu izanaren agiriekin batera, Udalean aurkeztu beharko dira, hala eskatzen zaionean. Baldintza horiek ez betetzeak etetea ekarriko du.
- k) Errentariak aseguru-poliza bat, arrisku orotarakoa, sinatu beharko du Artziniegako Udalaren alde, Udalak entregatutako higieztinaren eta instalazioen mantenu egokia bermatzeko, gutxienez 30.000 euroekin edukiagatik eta 60.000 euroekin edukitzeagatik. Horrez gain, erantzukizun zibileko aseguru bat sinatu beharko du hirugarrenen aurrean, gutxienez 300.000 euroko zenbatekoaz.
- l) Artziniegako Udalak plegu honetako klausulak betetzen direla kontrolatzea eta Tabernaren funtzionamendua ikuskatzea baimenduko du, uneoro.

m) *Tabernaren ustiapena bere kabuz gauzatu beharko du, aurkeztutako proposamena eta esleipena errespetatuz, dedikazio osoarekin eta lokalean presentzia fisikoa izanik, eta ez du hirugarren baten alde laga edo eskualdatuko, Artziniegako Udalaren berariazko baimenik izan gabe.*

n) *Errentaria negoziaren ustiapenaren titular modura agertuko da eta hala jardungo du. Horrenbestez, Artziniegako Udalarekin ez da inolako lan-harremanik ezarriko, ez errentariekin ezta Taberna ustiatzeko hark kontratatutako pertsonekin ere.*

o) *Errentariak arlo fiskalean, lan arloan, gizarte segurantzaren alorrean eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden arauak bete beharko ditu, eta baita Taberna-instalaziori dagokion osasun arloko araudia ere, Artziniegako Udala ez-betetze horien ondorioz salbuetsita geratzen delarik. Lanak gauzatzearen ondorioz langileek izandako edozein istripu edo kalteren kasuan, indarreko araudietan xedatutakoa beteko du bere erantzukizunpean, erantzukizun horrek Administrazioan inolako eraginik izan gabe.*

p) *Alokairua amaitzean, alokairu-esleipenaren zerbitzura egondako langile orok, udal instalazioak utzi beharko ditu, harekin batera.*

q) *Errentariak, jarduera hasi aurretik, jarduera garatu ahal izateko beharrezkoak diren lizentzia, baimen edo onespren guztiak eskuratu beharko ditu, aplikatzekoa den arloko araudia betez.*

#### IX. KLAUSULA.- ERRENTARIAREN ESKUBIDEAK

*Errentariak Tabernarako lokala eta atxikitako instalazioak (lehen solairuko lokalak eta beheko solairuko gordailurako lokala) erabiltzeko eskubidea izango du, eta baita udalaren jabetzakoak diren eta Taberna ustiatzekoak diren altzariak eta gainerako tresneria ere, baldintza teknikoaren pleguan zerrendatzen direnak.*

#### X. KLAUSULA- LOKALAREN ETA HARTAKO INSTALAZIOEN ENTREGA.

*Administrazioak kontratatzailearen eskura jarriko ditu, esleipena jakinarazi eta hurrengo hamabost egunen barnean, baldintza teknikoaren pleguan deskribatzen diren higieztina, makinak, altzariak eta instalazioak, errentamenduari lotuta geratzen direnak, kargarik eta zergarik gabe, eta Taberna ustiatzen hasteko libreki erabiltzeko.*

*Instalazioak, makinak eta altzariak zein egoeratan entregatzen diren zehazteko inbentario-akta jasoko da, bi aldeek sonatuko dutena, bikoiztuta.*

*Kontratua edo, hala badagokio, haren luzapena amaitu aurreko hamar egunen barnean, Artziniegako Udalak eta esleipendunak akta jasoko dute instalazio, makina eta ondasun higigarri bakoitza zein egoeratan dagoen zehazteko txostenarekin, eta akta hori kontratuaren hasieran sinatutakoarekin alderatuko da. Horietan demerituren bat hautematen bada esleipendunari egotzi ahal zaion arrazoiren bat dela medio, eta erabilera arrunt eta bidezkoaren edo denbora igarotzearen ondoriozko zaharkitzearen ondoriozkoa ez bada, espediente bat irekiko da. Bertan esleipendunari entzunaldia eskainiko zaio Administrazioari kalte horien ondorioz ordaintzeko zenbatekoa zehazteko, behin betiko bermea konfiskatuz edo, hori aski ez balitz, dagokion indemnitazioa erreklamatzuz.*

#### XI. KLAUSULA- KONTRATATZEKO AHALMENA. KAUDIMENA

*Kontratatzeko ahalmena dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridiko espainiar edo atzeritarrek, betiere, SPKLTB-aren 60. artikuluan kontratatzeko debeku modura zerrendatzen diren inguruabarren baten baitan ez badaude.*

*Era berean, enpresariak, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa burutzeko eska daitekeen enpresa-gaitasuna edo, hala badagokio, profesionala izan beharko dute.*

*Administrazioak aukera izango du aldi batez eratzen diren enpresa-elkarteekin kontratatzeko, SPKLTB-aren 59. artikuluekin bat etorriz (ez da beharrezkoa izango haien Eskritura Publikoetan eratzeari esleipena gauzatzeko den arte). Enpresa horiek solidarioki erantzun dute Administrazioaren aurrean, eta ordezkari edo ahalduz bakarrik izendatuko dute haren aurrean, ezinbestekoa*





delarik horietako bakoitza obra-enpresa modura sailkatuta egotea. Elkartze hori osatzen duen enpresari bakoitzak, jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatu beharko du. Horretarako, hurrengo klausuletan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta dokumentu pribatutan sinatzen duten enpresarien izen eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza eta kontratuak irauten duen bitartean Administrazioaren aurrean guztien ordezkari izango duen pertsona edo erakundea adierazi beharko dira, Enpresen Aldi Baterako Elkarte modura eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adieraziz. Dokumentu hori Elkarte osatzen duen enpresa bakoitzeko ordezkariak sinatu beharko dute.

Lizitazile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, eta ezingo du aldi baterako elkartzeko proposamenik sinatu beste enpresa batzuekin, indibidualki aurkeztu bada. Printzipio hori ez betetzeak berekin ekarriko du automatikoki berak aurkeztutako proposamen guztiak ezestea.

Proposamena aurkezteak berekin dakar plegu honetako klausulak, klausula teknikoaren plegua eta kontratuzko gainerako dokumentuak baldintzarik gabe onartzea, oso-osorik eta inolako salbuespenik gabe. Halaber, aurkeztutako datu guztien zehaztasunari buruzko adierazpen arduratsua onartzea eta kontratazioaren xede diren prestazioak kontratatzeke eskatzen diren baldintza guztiak onartzea.

## XII. KLAUSULA- BEHIN BETIKO BERMEA

Behin-behineko bermea ematek salbuesten da.

Behin-betikoko bermea esleipenaren zenbatekoaren % 5koa izango da, BEZ gabe, (halakotzat ulertuta esleipendunak eskaintzen duen errentaren zenbatekoa, kontratuak eta balizko luzapenek irauten duten bitartean) eta SPKLTB-aren 96. artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorren 61. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da.

Behin betiko bermea eratu izana esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo HAMAR egun baliodunen barruan egiaztatu beharko da.

Aplikagarri izango da SPKLTB-aren 99. artikuluan xedatutakoa, bermeak eratu, birjarri eta bidoizteari buruz. Eta baita 100. eta 102. artikulua ere, bermeak eta horien itzulketa eta ezeztapenetan dauden erantzukizunei buruzkoak.

## XIII. KLAUSULA -PROPOSAMENAK AURKEZTEA. AURKEZTEKO LEKU ETA EPEA. FORMALITATEAK ETA DOKUMENTAZIOA.

### XIII.1- Dokumentazio eta informazio osagarria

Klausula ekonomiko eta administratiboen plegua eta klausula teknikoaren plegua Artziniegako Udalaren udal bulegoetan egongo dira eskuragarri publikoari harrera egiteko ordutegian 08:00-14:00 bitartean, asteleheneetik ostiralera. Bulego horiek Garai Plazako 1. zenbakian daude, Artziniegako udalerrian. Halaber, eskuragarri egongo dira Kontratatzaillearen profilean: [www.artziniegakoudala.com](http://www.artziniegakoudala.com), lizitazioaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lizitazileak, proposamenak aurkeztu aurretik, Artziniegako Udalarekin jar daitezke harremanetan, lizitazio honi dagozkion inguruabar espezifikoaren kontsultak egiteko. Interesdun batek informazio osagarria eskatzen du denbora baliodun barnean, SPKLTB-aren 158. artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 78. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da.

### XIII.2.- Aurkezteko lekua eta epea.

Eskaintzak Artziniegako Udalaren udal bulegoetan egongo dira eskuragarri publikoari harrera egiteko ordutegian 08:00-14:00 bitartean, asteleheneetik ostiralera, HAMABOST egun naturalez lizitazioaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Bulego horiek Garai Plazako 1. zenbakian daude, Artziniegako udalerrian.

Azken eguna larunbata edo jaieguna izango balitz, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da epea.

Proposamenak postaz, telefax bidez edo bitarteko elektronikoko, informatuko edo telematikokoak erabiliz aurkeztu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako lekuetan.

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, enpresariak Correos bulegoan bidalketa egindako eguna justifikatu beharko du eta kontratazio-organoari eskaintza bidali duela jakinarazi beharko dio telex, fax edo telegrama bidez egun berean, kontratuaren xedearen izenburu osoa eta lizitatzaillearen izena adieraziz.

Aipatutako telex, fax edo telegrama jaso izanaren egiaztapena udal Idazkaritzan bertan egindako eginbidez burutuko da. Bi betekizun horiek ematen ez badira, proposamena ez da ontzat emango kontratazio-organoak lizitazioaren iragarkian adierazitako epea amaitu ostean jaso badu. Edozein kasutan, data hori igaro eta hamar egunaren buruan dokumentaziorik jaso ez bada, ez da ontzat emango.

Erabil daitezkeen bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikokoek, gainera, azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

### XIII.3.- Formalitateak.

Proposamenak behar bezala identifikatutako bi gutun-azal itxitan aurkeztuko dira, lizitatzailleak sinatuta eta jakinarazpenetako helbidea adierazita. Gutun-azal horietan gutun-azalaren izenburua idatzi beharko da eta "Artziniegako Udal Igerilekuetako Taberna-Kafetegiaren alokairu-kontratuaren esleipenerako proposamena" idazkia ere bai.

Honatz gutun-azal horien izenburua:

«A» gutun-azala: Dokumentazioa.

«B» gutun-azala: Proposamen Ekonomikoa

Gutun-azal bakoitzean barneratzeko dokumentuak jatorrizkoak edo kopia egiaztatutakoak izan beharko dira, indarreko Legeriaren arabera.

Gutun-azal bakoitzaren barnean dokumentu hauek sartuko dira:

A) «A» GUTUN-AZALA. DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

Administrazioarekin kontratatzeko lege ezarritako baldintzak betetzen direla adierazteko lizitatzaillearen adierazpen arduratsua barneratu beharko da.

Eredu hau jarraituz aurkeztuko da:

### ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA

\_\_\_\_\_ JAUN/ANDREA, jakinarazpenetarako helbidea \_\_\_\_\_,  
\_\_\_\_\_ kalean eta \_\_\_\_\_ zenbakian duena \_\_\_\_\_ IFZ zenbakiarekin,  
\_\_\_\_\_ Erakundea ordezkatuz, \_\_\_\_\_ IFZ duena, Artziniegako Udalaren aurrean  
lizitazioan parte-hartze aldera.

### BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU

Lehena.- Artziniegako Udal Igerilekuetako Taberna Kafetegiaren alokairu eta ostalaritza-ustiapenerako kontratua, prozedura ireki bidez eta izapide arruntarekin, esleitzeko Artziniegako Udalak ALHAOn argitaratutako iragarkiaren berri duela.



*Bigarrena.- Klausula administratibo berezien plegua eta dokumentazio teknikoa aztertu eta ezagutzen dituela.*

*Hirugarrena.- Era berean, kontratazio honetan aplikatzekoak diren legezko eta arauzko testuak ezagutzen dituela.*

*Laugarrena.- SPKLTB-aren 146. artikuluko lehen atalean eskatzen diren aurretiko betekizun guztiak betetzen dituela eta berariaz aitortzen duela esleipendun izateko kontratazio honetan aplikagarri diren baldintza administratiboen Pleguetan eta dokumentazio teknikoan ahalmen eta kaudimenari buruz legez ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, Administrazioak hala eskatzen duenean haiek helarazteko konpromisoa hartuz.*

*Ahalmenari eta kaudimenari buruzko baldintza horien inguruko betekizunak Plegu honetan proposamenak aurkezteko ezarritako epea amaitu aurretik betetzen dituela.*

\_\_\_\_\_ (e)n 2017ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ an

Sin.: \_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_

**B) B gutun-azala, PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

*Proposamen bakarra barneratuko da, lizitatzailerak edo hura ordezkatzeko duen pertsonak sinatua, eta hurrengo ereduaren arabera aurkeztuko da*

**PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA**

\_\_\_\_\_ Jaun/andreak, \_\_\_\_\_ jakinarazpenetarako helbidea \_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ kalean, \_\_\_\_\_, zenbakian dudanak \_\_\_\_\_ IFZ zenbakiarekin, \_\_\_\_\_ Erakundea ordezkatzuz, \_\_\_\_\_ IFZ zenbakiarekin, adierazten dut Artziniegako Udal Igerilekuen alokairu eta ostalaritza-ustiapenaren kontraturako oinarri den Plegua ezagutzen dudala eta osorik onartzen dudala, lizitazioan parte hartuz, konpromiso hauek hartzen ditudalarik:

a) *Eskaintza honen xede den lokala alokatzekoa, urtean \_\_\_\_\_ euroko errenta ordainduz, (hizki eta zenbaki bidez adierazi behar da). Zenbateko horri % 21eko BEZ zerga gaineratu behar zaio, eta hileroko epetan ordainduko da.*

*Prezio horietan gainerako kontzeptuak, zergak, gastuak, tasak eta edozein esfera fiskaleko arielak sartzen dira.*

b) *Artziniegako Udal Igerilekuetako Taberna Kafetegia ustiatu eta mantentzekoa, pleguan ezarritako betekizunak betez.*

\_\_\_\_\_ (e)n 2017ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ an

Sin.: \_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_

**XIV. KLAUSULA - KONTRATAZIO-MAHAIA.**

*Kontratazio-mahaia modu honetan eratu edo osatuko da:*

*- Presidentea: Artziniegako Udaleko Alkatea edo hark eskuordetutako Udalbatzako kidea.*

- Batzordekideak: Gobernuko Tokiko Batzordea osatzen duten zinegotziak eta Udaleko idazkari eta kontu-hartzailea.

- Idazkaria: funtzionario bat, edo haren gabezia, kontratazio-organoaren baitako beste edozein langile.

#### XV. KLAUSULA- PROPOSAMENAK IREKITZEA

Kontratazio-mahaia proposamenak aurkezteko epea amaitu eta bosgarren egun baliodunean eratu da, goizeko bederatzietan (09:00). «A» gutun-azala irekiko du eta bertan barneratzen den dokumentazio administrazioa kalifikatuko du.

Lizitazioan onartutzat emateko, pertsona juridikoek kontratu honen xede diren prestazioak beren xede, helburu edo jarduera-eremuaren barnean sartzen direla egiaztatu beharko dute. Horretarako, beren estatutuak edo fundazio-arauak aurkeztuko dituzte.

Artziniegako Udalak ofizioz eta proposamen ekonomikoak ireki aurretik, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko egunean Enpresa lizitzaile guztiek Udala honekiko dituzten zerga-betebeharrak betetzen dituztena egiaztatuko du. Kontratazio-mahaia onartezin modura deklaratu du Artziniegako Udalarekiko betebeharrak egunean ez dituzten lizitzaileen proposamenak.

Beharrezkoa balitz, Mahaia gehienez hiru eguneko izango den epe bat emango du lizitzaileak aurkeztutako dokumentazioan ikusitako akats edo gabezia zuzengarriak zuzentzeko.

Ondoren, «B» gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu, proposamen ekonomikoak barneratzen dituztenak.

Proposamen horiek irakurri ondotik, Mahaia aukera izango du, egokitzen jotzen bada, beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatzeko, horiek Plegu honetan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera balioesteko.

Aurkeztutako proposamen ekonomikoen balioespena ikusirik («B» gutun-azala), Kontratazio-mahaia eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitzailea proposatuko du kontratuaren esleipendun modura.

Bi lizitzaile edo gehiagoren artean berdinketa ematen bada, kaudimen tekniko egiaztatzeko unean, bere lantaldean ezgaitasunen bat duen langile kopurua % 2tik gorakoa duen enpresak aurkeztutako proposamena lehenetsiko da.

Proposamen onuragarrienean berdinduta dauden enpresa lizitzaile ugari, aldi berean, beren lantaldeetan ezgaitasunen bat duen langile kopuruaren portzentajea % 2tik gorakoa badute, kontratua zozketa bidez esleituko da, Mahaia egingo duena egintza publikoan.

#### XVI. KLAUSULA- DOKUMENTAZIOA ESKATZEA

Alkatetzako Dekretu bidez eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitzailea deituko da hamar egun balioduneko epearen barnean, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, SPKLTB-aren 146. artikuluan aipatzen diren aurretiko betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezan, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak ere betetzen dituela egiaztatzearekin batera, edo kontratazio-organoari baimena eman diezaion horren egiaztapena modu zuzenean eskura dezan; azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 64.2. artikularen arabera kontratua gauzatzeko dedikatu edo eskuratzera konprometitutako bitarteak egiaz dituela egiaztatuz, eta dagokion behin betiko bermea eratu izana egiaztatuz.

Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren ahalmenari eta kaudimenari buruzko betekizunak betetzen diren ikusteko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaierakoa izango da.

Betekizuna behar bezala eta emandako epearen barnean betetzen ez bada, lizitzaileak bere eskaintza baztertu egin duela ulertuko da. Horrenbestez, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitzaileari, eskaintzen sailkapenean geratutako hurrenkera kontuan hartuz.



#### XVII. KLAUSULA- ALOKAIRUA FORMALIZATZEA

Behin eskatutako dokumentazioa jasota, kontratazio-organoak kontratua esleitu du eta lizitazioan parte hartu dutenei esleipenaren berri emango dio, kontratatzailearen profilean argitaratuz.

Jakinarazpen horrek, edozein kasutan, baztertutako edo alboratutako lizitatzailleak esleipenaren erabakiaren aurka behar bezala argudiatutako errekurtsua ipintzea ahalbidetzeko moduko informazioa izan beharko du derrigorrez. Zehazki, alderdi hauek jasoko dira:

- Esleipendun izan ez diren lizitatzaillei dagokienez, hautagaitza ezesteko arrazoen azalpen laburtua.

- Esleipen-prozeduratik baztertutako lizitatzailleen kasuan, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, horiek ere laburtuta.

Edozein kasutan, eskaintza onartu zaion esleipendunaren izena eta bere proposamenean erabakigarriak izan diren ezaugarri eta abantailak adierazi beharko dira, onartutako eskaintzak aurkeztu dituzten gainerako lizitatzailleen aurrean lehenesteko arrazoiekin.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean hori formulatzeko epea adieraziko da.

#### XVIII. KLAUSULA- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Administrazioak eta kontratistak esleipen-kontratua formalizatu beharko dute Dokumentu Administratiboan. Horretarako, HAMABOST egun balioduneko epea izango dute, kontratazio-organoak adostutako esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, edozein Erregistrotan sartzeko nahikoa titulu izanik. Edozein kasutan, kontratu administratiboa Eskritura Publikora eraman daiteke, kontratistak hala eskatuta eta bere kontura.

Kontratistak, kontratua ez ezik, klausula Administratibo berezien Plegua sinatu beharko du, hartara atxikita ez balego, eta baita baldintza teknikoaren plegua ere.

#### XIX. KLAUSULA- ESLEIPENDUNAREN KONTURA DIREN GASTUAK.

Esleipendunaren kontura izango dira hurrengo gastuak:

a) Lizitazioak sorrarazitako iragarkiak eta kontratua prestatu eta formalizatzearen ondoriozkoak.

b) Kontratutik eratortzen diren zergak, estatukoak, udal mailakoak eta eskualde mailakoak.

c) Hala badagokio, esleipen-kontratuaren formalizazio publikoaren ondoriozkoak eta plegu honetan eskatzen diren aseguru-polizak kontratatzearen ondoriozko gastuak.

#### XX. KLAUSULA- KONTRATUA ETETEA.

Kontratua eteteko arrazoiak izango da baldintzen plegu honetan eta kontratuan aurreikusitako edozein betebeharrak ez betetzea eta, edozein kasutan, alokairu-kontratuaren araudi zibilean eteteko arrazoi modura ezarritakoak:

a) Ezarritako errentaren ordainketa edo errentariak beregain hartutako edozein gasturen ordainketa ez betetzea.

b) Irekiera- eta itxiera-ordutegia ez betetzea, behin eta berriz.

c) Tabernaren jarduerarekin, lizentziarekin, baimen administratiboekin edo zaratarekin lotuta indarrean dagoen araudia ez betetzea.

d) Kontratua berrakuratu, eskualdatu edo lagatzea, udalaren berriazko baimenik gabe.

### **BALDINTZA TEKNIKOAK**

Lokalak eta instalazioak, ekipamendua, altzariak eta taberna-kafetegiko bitarteko materialak egokitzeko kalkulaturako inbertsioa (12.000 euro) osatzen duten esku-hartze eta ekintza guztiak gauzatu beharko dira.

*Esku-hartze horiek baldintzatzaile hauek izango dituzte:*

*Sukaldeko baldintzei dagokienez:*

*Jantoki kolektiboak eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten establezimendu ez industrialak sailkatzeko eta horiek Euskal Autonomia erkidegoan bete behar dituzten neurri sanitarioak finkatzeko Osasun Kontseilariaren 2002ko martxoaren 15eko Aginduko I Multzooan sartzen den sukalde-jarduera baterako (berehala kontsumitzeko elikagaiak prestatzeko Jantoki kolektiboak, baina janari-zerbitzu osorik gabe horretarako lokal edo zonaldeetan. Multzoo horretan sartuko dira pintxoak edota plater konbinatuak egiten dituzten tabernak, pizzeriak, hanburgeseriak, ogitartekoak prestatzeko lokalak, kafetegiak eta antzekoak) eskatzekoak diren higiene eta osasun arloko baldintzak beteko dira.*

*Hondakinei dagokienez:*

*Zaborra erraz garbitu eta desinfektatzeko edukiontzi egokietan jasoko da, eskuz ez eragiteko taparekin. Zaborra, egunero botako da.*

*Esleipendunaren kontura egiteko eta aurkeztutako eskaintzan jaso beharko diren gutxieneko ekintzak.*

*ELEKTRIZITATEA Hornidura-kontratua esleipendunaren kontura egingo da. Halaber, dauden instalazioak egokitu egingo dira, sukaldeko koadroaren egoera aldatzea barne. Koadro hori sukaldearen premia berrietara egokituko da eta barra-zonaldea eta sukaldea bereizteko beharrezkoa den guztiarekin. Halaber, makinetan eta instalazioetan horiek indarreko araudira egokitzeko beharrezkoak diren zuzenketak egingo dira, hori guztiari Kontrol Baimenduaren Organismoak egiaztatuta.*

*SUTEEN AURKAKO BABESA: Suteen aurka babesteko instalazioa egokitu egingo da, suburua automatikoki itzaltzeko sistema barne (Instalaturako potentzia > 20 kW), hori guztiari Kontrol Baimenduaren Organismoak egiaztatuta.*

*GASA: Hornidura-kontratua esleipendunaren kontura egingo da eta, era berean, bere kontura izango dira bere negozio-planean eskatzen den erabilerarako beharrezkoak diren lanketa eta konexioak.*

*AIRE-GIROTZEA: Instalazio hau eraikinaren multzo orokorraren barruan kokatzen da. Horrenbestez, esleipendunak aldaketak egin nahiko balitu, Udaleko zerbitzu teknikoek baimendu beharko dituzte aldaketa horiek.*

*Proiektuak aurkeztea beharrezkoa balitz, eskumeneko teknikariak onetsita egon beharko dira eta horretarako eskumena duten udal zerbitzuek gainbegiratura.*

*ALTZARIAK ETA EKIPAMENDUA Sukalderako erabilgarri dagoen espazioaren ezaugarri eta baldintzak kontuan izanda, garrantzitsua da suaren potentzia oso instalatua 30 kW-tik gorakoa ez izatea. Horrenbestez, su-elementuak ordeztu egin beharko dira, adierazitakoa baino potentzia gutxiago lortze aldera. Horrela, aurretiaz dagoena berritu egin beharko da, elementu berri hauek paratuta:*

*(Behar bezala justifikatuz gero bestelako hornidura bat onartu ahal izango da, betiere, 30 kW-tik beherako gehieneko potentzia instalatuaren baldintza oinarritzat betetzen bada)*

### **UDAL IGERILEKUETAKO ALTZARIEN INBENTARIOA 2016KO MARTXOAREN 6AN**

#### **ELEMENTUAK**

- Angelopo Sukalde Labea. 4 su sukaldean.
- Frijigailua sukaldean.
- Sammic ontzi-garbigailua sukaldean.
- "Ascaso" lisagailua sukaldean.
- Hozkailu-altzaria eta Angelopo harraska sukaldean.
- Angelopo platerak berotzekoa sukaldean.
- Suburua.
- Combi ECRON sukaldean.
- Euli-hiltzeko 1 sukaldean.
- Harraska 1 sukaldean.
- Zabor-ontzi handia.
- Zurezko 38 aulki.
- Zurezko 12 mahai.
- Aire girotuko 3 aparatu eta horien mandoak.
- 5 taburete
- Sabaiko 4 lanpara barran.



- 3 lanpara halogeno sarrerako atarian.
- Sabaiko 6 lanpara handi 1. jangela-aretoan.
- 2 arasa 2. jangela-aretoan
- 6 gortina 2. jangela-aretoan.
- Sabaiko 2 lanpara 1. jangela-aretoan.
- ITV pulsar izotz-makina tabernan.
- Sammic edalontzi-garbigailua tabernan.
- Hozkairu-alitzairua tabernako zonaldean.

- 1.- 17 entsalada-ontzi.
- 2.- 14 plater sakon.
- 3.- 11 plater sakon.
- 4.- 10 aurkezpen-erretilu.
- 5.- 4 aurkezpen-plater ezberdin.
- 6.- 2 izotzontzi.
- 7.- Kazola txikia.
- 8.- Zartagina.
- 9.- Altzairu herdoilgaitzezko 4 erretilu zirkular.
- 10.- 7 intxaur-hauskailu.
- 11.- 4 pasta-sardexka.
- 12.- Pintza-guraize 1.
- 13.- Zumezko 6 saski.
- 14.- 33 laban eta zumezko saski bat.
- 15.- 48 sardexka eta zumezko saski bat.
- 16.- 36 laban eta zumezko saski bat.
- 17.- 84 sardexka eta zumezko saski bat.
- 18.- 53 zopa-koilara eta zumezko saski bat.
- 19.- 25 arrain-pala eta zumezko saski bat.
- 20.- 32 laban eta zumezko saski bat.
- 21.- Altzairu herdoilgaitzezko 3 teontzi.
- 22.- 121 postre-koilara eta zumezko saski bat.
- 23.- 2 tefloi-ohol.
- 24.- Konbinatuentzako 2 koilara eta kortxo-kentzeko bat.
- 27.- Modelo ezberdineko 17 postre-plater.
- 28.- Altzairu herdoilgaitzezko 11 oliba-plater.
- 29.- Zeramikazko 6 oliba-plater.
- 30.- 4 azpil.
- 31.- 5 itsaski-sardexka.
- 32.- Zumezko 4 saski.
- 33.- 3 oliba-plater.
- 34.- 21 flan-ontzi.
- 35.- Altzairu herdoilgaitzezko 15 azpil ertain.
- 36.- 38 kafe-plater.
- 37.- 30 kafe-katilu ertain.
- 38.- 17 kafe-katilu txiki.
- 39.- Kristalezko 5 pitxer.
- 40.- 4 olio- eta gatz-ontzi.
- 41.- 7 kafe-katilu.
- 43.- Plantxa-pala 1.
- 44.- Mamirako 11 edalontzi buztinezko.
- 45.- Buztinezko/izozkietarako 19 kazola txiki.
- 46.- Buztinezko 2 kazola txiki.
- 47.- Azpil handi 1.
- 48.- Terreina urdin 1.
- 49.- Frijigailu-erretilu 1.
- 50.- Azpil txiki 1.
- 51.- 5 hautsontzi.
- 52.- 8 Tonqueray kopa.
- 53.- 2 burruntzali.

- 54.- Zerbitzatzeko 2 koilara.
- 55.- 2 patata-zuritzeko eta laban bat.
- 56.- 29 ahozapitako.
- 57.- 6 arraspa.
- 59.- 2 poto-irekigailu.
- 60.- 19 xanpain-kopa.
- 61.- 7 postre-kopa.
- 62.- 5 postre-kopa.
- 63.- 9 postre-kopa.
- 64.- 2 postre-kopa.
- 65.- 39 garagardo-pitxer.
- 66.- Tutu erako 22 edalontzi.
- 67.- 22 ur-kopa.
- 68.- 19 ardo-kopa txiki.
- 69.- 5 kopa ezberdin.
- 70.- 2 ardo-kopa.
- 71.- 9 garagardo-kopa.
- 72.- 13 garagardo-edalontzi.
- 73.- San Miguel 7 kaña-edalontzi.
- 74.- 3 kaña garagardo-kopa.
- 75.- 8 cognac-kopa.
- 76.- Konbinatuetarako 8 edalontzi.
- 77.- 5 kaña-edalontzi.
- 78.- 16 ardo-edalontzi.
- 79.- 3 supizteko.
- 80.- Guraizeak.
- 82.- 2 azpil”

**BIGARRENA.** *Lizitazio-prozesua irekitzea, interesdunei deialdia luzatuz HAMABOST egun baliouduneko epean, iragarki hau ALHAOn eta kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, beren eskaintzak aurkez ditzaten”.*

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue?

Joseba Vivanco Retes: beno, guk baietz, baldintzen Pleguari buruzko eztabaidan zenbait proposamen egin genituen, beno azkenik jaso ez direnak, ekonomikoaz gain beste irizpide motaren bat zehazteari dagokionez, eta galbealdia areagotzeari dagokionez, baina tira, aldeko botoa emango dugu.

Alkatea: Besterik ez? bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).  
Onartuta geratu da.

## **5. Barcenako aparkalekuaren esleipena**

### **“2017KO MARTXOAREN 16AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA**

*Ikusirik, 2016ko abenduaren 15ean Alkateak “Barcena” aparkalekurako urbanizazio-obrak kontratatzeko premia hauteman zuela, Artziniegako Barcena auzoko 5. zenbakian. Dagokion Obra Proiektua onartuta, kontratazio-espeditente honetara gaineratzen da.*





*Ikusirik, obraren ezaugarriak kontuan hartuta, Teknikariak prozedura egoki modura publikitaterik gabeko prozedura negoziatua irizten duela.*

*Ikusirik, 2016ko abenduaren 15ean, indarreko aurrekontuaren errekurtsio arruntei buruzko Kontu-hartze txostena igorri zela.*

*Ikusirik, 2016ko abenduaren 15ean Idazkaritzak txostena igorri zuela Legeria aplikagarriari eta jarraitzeko prozedurari nahiz kontratua onartu eta esleitzeko eskumena duen organoari buruz.*

*Ikusirik, 2017ko urtarrilaren 12an Osoko Bilkurak hala erabakita, aipatutako kontrataziorako espedientea abiaraztea onartu zela proposatutako kontratazioaren premia eta egokitasuna argudiatuz, eta kontratuaren esleipena arautu behar duen Administrazio Klausula Partikularren Plegua onartu zela, publikitaterik gabeko prozedura negoziatuz, era berean hura esleitzeak dakarren gastua onartu zen.  
Ikusirik, 2016ko azaroaren 17an honako enpresei eskaintzak eskatu zitzaizkiela:*

**ONAINDIA  
BALGORZA  
GAIMAZ, S.A.  
CONSTRUCCIONES ARANA  
CAMPEZO**

*Ikusirik, 2017ko urtarrilaren 27an espedientean agertzen diren eskaintzak ziurtatu zirela.*

*Ikusirik, 2017ko martxoaren 7ean eskaintzak balioesteko eskumena duen organoa, Kontratazio-mahaia, eratu zela eta hark, negoziatutako alderdiak kontuan hartuz CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. enpresaren alde egin zuela hurrengo esleipen-proposamena:*

*“CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. enpresari esleitzea “Barcena”, aparkalekuko urbanizazio-obrak, Artziniegako Barcena auzoko 5. zenbakian, 190.476,53 euroko zenbatekoaz (157.418,62€ gehi 33.057,91€ BEZ zergakoak)”.*

*Ikusirik, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu zuen lizitatuileari dei egin zitzaioela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 146.1 eta 151.2 artikuluetan aipatzen diren egiaztagiria aurkezteko, nahiz behin betiko bermea eratu izana eta gainera kontratuaren gauzapenean erabili edo atxikitzeko konpromisoa hartutako bitartekoak erabilgarri dituela egiaztatzeko.*

*Ikusirik 2017ko martxoaren xx-(e)an CONSTRUCCIONES MORGA, S.L., hautagaiak behin betiko bermea eratu zuela 8.767,00 eurotan eta eskatutako egiaztagiriak aurkeztu zituela.*

*Gaineratzen den dokumentazioa aztertuta, Idazkaritzaren txostena ikusirik, eta azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 151.4. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritz, 2017ko urtarrilaren 4an Lurraldeko Informazio Batzordeak egindako proposamena aintzat hartuz, Udaltzatuz guztien adostasunarekin ERABAKI du honako*

#### **AKORDIOA**

**LEHENA.** CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. enpresari esleitzea, Barcena auzoko 5. zenbakian dagoen “Barcena” aparkalekurako urbanizazio-obren kontratua, publikitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez, Osoko Bilkurak hala onartuta 2017ko urtarrilaren 12an.

**BIGARRENA.** Gastua 2016ko aurrekontu luzatuko aurrekontuko 459.601.006 partidaren kontura egitea.

**HIRUGARRENA.** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 151.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, esleipenaren berri ematea esleipendun izan ez diren hautagaiei eta haiek emandako behin-behineko bermea itzul dadila onartzea.

**LAUGARRENA.** *CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. enpresari, Barcena auzoko 5. zenbakian dagoen "Barcena" aparkalekurako urbanizazio-obren kontratuaren esleipendunari, akordio honen berri ematea eta dei egitea kontratua sina dezan, 2017ko martxoaren 28an Artziniegako Udalean, eguerdiko hamabietan (12:00).*

**BOSGARRENA.** *Artziniegako Udalaren jabetzako obra-kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profileen argitaratzea.*

**SEIGARRENA.** *Behin kontratua formalizatuta, Kontratatik Obraren Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztu beharko du, Proiektuko Segurtasun eta Osasun Ikerketarekin bat etorritz. Plan hori Udalak onartu beharko du, alde aurretik Segurtasun eta Osasun arloko Koordinatzailearen txostena jasota, eta ondoren lan-agintaritzari jakinarazita. Izapide hori burututa, zuinketa eta obra hasteko akta jasoko da.*

**ZAZPIGARRENIA.** *Kontratuaren oinarritzko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari helaraztea, azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 333.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

Alkatea: Hori da proposamena. Baduzue ezer esateko?

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).

Onartuta geratu da.

Eta jorrazteko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko zortziak eta berrogei minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.